

# SARRERA

Betidanik ikusi da jende guztiak ez duela diru nahikoa edo gobernuak ematen dizkien laguntzak ez direla nahikoak beraien bizitza aurrera atera ahal izateko eta autonomoak izateko. Sortutako proiektua baliabide urriko pertsonentzat dago pentsatuta, eskaintzen den zerbitzu publiko berri bat izango litzateke, bertan, pertsona guztiei ematen die aukera beraien bizi kalitatea hobetzeko.

Askotan gizartean aipatzen den bezala, GKEtan ezin izaten da jakin ea nora jotzen den emandako laguntza. Proiektu honekin zuzenean ikusi ahalko da nora joaten den emandako laguntza, herrian aurreikusiko baitzuten beraien egoera eta beraien aurrerapena, hau da, herriak edukiko zuela beraien berri eta hauen funtzionamendua.

Proiektu hau ez da zerbitzu bat soilik, eraikuntza berezi bat ere beharko zen hau bideratzeko. Bertara joaten diren pertsonak beraien oinarrizko beharrak asetzeko laguntza, hizkuntza ez badute ezagutzen eta beraien ikasketak amaitu gabe baldin badute, zerbitzu honek ere arlo horretan laguntza eskainiko zioten, eta bertan ere integrazio sozialaren inguruan tailerren bat egongo zen, beraiek noizbait lana aurkitzeko, kanpotarra badira gure kulturarekin harremanetan egoteko... alegia, gure gizartean integratzen lagunduko zuen tailer bat izango zen. Oso zaila da zerbitzu hau, zenbat pertsonek behar izango duten aurreikustea.

Proiektu honekin ez da nahi janaria eta lo egiteko leku bat ematea soilik, denbora baten ondoren beraiek bakarrik aurrera egiten ikasteko aukera ematea baizik, mundu kapitalista honek kendu dioten aukera ematea da helburua.